


IRABAZI - ITURRIAK

Irabazien iturria enpresa edo proiektu batek lortzen duen diruaren jatorri nagusia da. Jarduera desberdinetatik etor daiteke: produktuak saltzea, zerbitzuak eskaintzea edo inbertsioak egitea. Gure kasuan, produktuak saltzean oinarritzen da. Iturri hori identifikatzea eta zaintzea funtsezkoa da egonkortasun ekonomikoa mantentzeko eta hazkundera bultzatzeko.



Hasierako inbertsioa egiteko, mailegu bat eskatu dugu 30.000€-koa eta bakoitzak 2.000€-ko ekarpena egin dugu. Inbertsio hau garrantzitsua da proiektuak aurrera jarrai dezan. Maileguaren eta gure ekarpenaren konbinazioarekin, beharrezko baliabideak izango ditugu makineria eta tresnak erosteko eta produkzioa martxan jartzeko.

Gure enpresaren irabazi-iturriak, makinen salmentan oinarritzen dira. Horrez gain, ordezkoko piezak eskaintzen ditugu puskatu edo zahartu egin daitezkelako.. Horren arira, gure irabazien %70 makinen salmentatik aterako da eta %30 ordezkoko piezen salmentatik.

Makina 1.000€-tan salduko dugu, prezio hau nahiko merkea da, eta benetan aukera bikaina da inbertsio bat egiteko.

Egunean sei makina saltzea aurreikusten dugu eta astean sei egunetan egingo dugu lan, beraz, astean 36 makina ekoiztu eta salduko genituzke, eta hori gure helburu nagusia izango litzateke. Hilean 144 makina inguru ekoiztea eta saltzea espero dugu, eta horrek hilero 144.000€-ko fakturazioa ekarriko digu.

Gure hilabeteko etekinak 55.168,2€-koa izango da, baina hori aldakorra izan daiteke hilabetearen arabera.